

Nerbioi Ibaizabaleko herritarren ideiak eta aholkuak hondakin gutxiago sortzeko

Hondakin onena da sortzen ez dena. Eta zuk... zer egiten duzu hondakin gutxiago sortzeko? Ba al duzu ideia errazen bat partekatzeko?

Galdera horientzat jaso ditugun erantzunetako batzuk bildu ditugu gida honetan. **Idea erraz** asko daude **hondakin gutxiago sortzen** laguntzeko.

Gida hau osatzeko ideia gehiago badituzue, bidali hona: info@udaltalde21.eus



Udaltalde
Nerbioi Ibaizabal 21

Jasangarritasun Bulegoa
Oficina de Sostenibilidad



Hondakin Zerbitzua
Servicio de Residuos
Nerbioi Ibaizabal



Info*:

www.udaltalde21.eus

T. 94 671 26 99

Planifikatu zure erosketak. Elikagaien herena zaborrontzira doa

“

- Saiatzen naiz janaria ez alferrik galtzen.
N., Arrigorriaga
- Saiatzen naiz janaria ahalik eta gehien aprobetxatzen eta behar dudana baino ez erosten, galdu ez dadin.
A., Arrigorriaga
- Otorduetako hondarrak aprobetxatzen ditut beste plater batzuk prestatzeko.
M., Etxebarri
- Erosketak egitean kontuan hartzen dut produktuen iraungipen-data.
S., Arrigorriaga
- Asteko menu guztiak planifikatzen ditut erosketak egin aurretik.
M., Arrigorriaga

”



Eraman beti ontzi berrerabilgarriak: oihalezko poltsak, taperrak, erosketa-orga...

“

- Beirazko taperrak eramaten ditut aldean harategira eta arraindegira joaten naizenean.
A., Orozko
- Fruta-dendan dendariari eskatzen diogu jenero guztia batera jartzeko.
J., Etxebarri
- Sarezko poltsak erabiltzen ditut frutarako.
A., Zaratamo
- Plastikozko poltsei “ez” esaten diet.
A., Etxebarri
- Oihalezko poltsa tolesgarriak erabiltzen ditut: garbitu egin daitezke eta erraz eramane daitezke poltsikoan.
M., Arrigorriaga
- Poltsa berrerabilgarriak erabiltzen ditut.
A., Arrankudiaga-Zollo
- Orgatxoarekin eta errafiazko poltsekin joaten naiz erosketak egitera.
A., Etxebarri

”



Erosi soltean edo lehenetsi bilgarri gutxi duten produktuak



- **Utzi diot kafe-makina kapsuladunak erabiltzeari eta kaxatan edo handizka erosten dut fruta.**
C., Arrigorriaga
- **Ontzi handietan datozen produktuak erosten ditut (ez banaka bilduta datozenak).**
I., Etxebarri
- **Ez dut erosten ezer poliestirenozko azpiletan datorrenik. Saiatzen naiz bilduta datorren produkturik ez erosten.**
M., Etxebarri
- **Kristalezko ontziak erosten ditut plastikozko brick-ak erosi beharrean.**
U., Etxebarri
- **Xanpu solidoa eta pastillako gela erabiltzen ditut. Bizarra egiteko aparra ere solidoa da, eta hortzetako eskuilak banbuzkoak.**
I., Etxebarri
- **Plastikozko poltsarik gabe pisatzen ditut produktuak.**
I., Zeberio
- **Saiatzen naiz bilduta datorren produkturik ez erosten.**
A., Arrigorriaga
- **Ahal den guztia soltean erosten dut, ahal bada produktu freskoak.**
Z., Ugao-Miraballes
- **Saiatzen naiz kontsumitzen paketetan sartu gabeko tokiko produktuak eta ontzi itzulgarriak dituztenak. Adibidez, tokiko ekoizleei erosten dizkiet arrautzak, eta haiek ontziak jasotzen dituzte berrerabiltzeko.**
J., Arakaldo
- **Etxeko jakiak prestatzen ditut gehiago.**
I., Etxebarri



Trukatu edo konpondu arropa, gailu elektronikoak, etxetresna elektriko txikiak...

“

- Arropa bezalako produktuak konpontzen ditut eta bigarren erabilera bat ematen diet.
S., Etxebarri
- Arropa, jostailuak... ematen dizkiet senide eta lagunei.
G., Ugao-Miraballes
- Botatzeko diren gailu elektronikoak eman egiten ditut.
I., Arrigorriaga
- Saiatzen naiz gauza puskatuak konpontzen eta zaharberitzen.
M., Etxebarri
- Erabiltzen ez ditudan gailuak trukatu edo eman egiten ditut.
I., Etxebarri

”



Kontsumitu bakarrik behar duzuna, eta erosketa arduratsu bat egin

“

- Ongi aprobetxatzen dut kontsumitzen dugun guztia.
J., Etxebarri
- Herriko dendetan erosten dut.
D., Etxebarri
- Saiatzen naiz behar ez dudarik ez erosten: arropa, oinetakoak, jostailuak...
M., Arrigorriaga

”



+eko

Etxean... berrerabiltzen dugu eta plastikoa saihesten dugu... Ideia gehiago!



- Silikonazko tapak erabiltzen ditut zilar-papera erabili beharrean.
L., Arakaldo
- Kristalezko ontziak berrerabiltzen ditut bertan gordetzeko saldak, etxeko tomate saltsak edo janari hondarrak. Bestalde, plastikozko ontzi batzuk berrerabiltzen ditut janariak hozkailuan txukun edukitzeko.
J.M., Etxebarri
- Esne brick-ak, taperrak eta silikonazko poltsa berrerabilgarriak erabiltzen ditut janariak izozteko.
M., Etxebarri
- Lanerako edo askarirako ogitartekoak oihal berezi batekin biltzen ditugu.
M., Urduña-Orduña
- Plastikozko poltsak aprobetxatzen ditut zaborra botatzeko.
C., Arrigorriaga
- Fakturak posta elektronikoz jasotzen ditut.
M., Arrigorriaga
- Barazki eta fruta hondarrak abereei ematen dizkiet.
E., Arrigorriaga
- Jogurtak etxean egiten ditugu.
I., Etxebarri
- Labea eta plantxa erabiltzen ditut olio gastua gutxitzeko. Orriak alde bietatik erabiltzen ditut marrazteko.
M., Etxebarri
- Plastiko jaurtigarriak berrerabiltzen ditut lorontziak egiteko edo janaria gordetzeko.
E., Etxebarri
- Ahal ditudan gauza guztiak aprobetxatzen ditut txikiekin eskulanak egiteko.
E., Arrigorriaga
- Ez dugu erabiltzen pila arruntik. Nahiago ditugu birkargatzen direnak.
Y., Etxebarri
- Toailak eta izarak traputarako berrerabiltzen ditugu.
A., Etxebarri
- Konposta egiten dut etxean.
G., Ugao-Miraballes
- Sukaldeko olio berrerabiltzen dugu.
P., Etxebarri
- Musuko garbigarriak erabiltzen ditut.
M., Etxebarri
- Oparietarako papera berrerabiltzen dut.
P., Etxebarri

